

BERTSOAK

Bixente Barandiaran

Aspalditxoan nola ez nuen
Errenteriko berririk
zer moduz bizi zeraten
nengon pentsatzen jarririk
zuek eman nazuten pozak
nola ez duen neurrik
alditut danak idatzi arte
ez det itxiko begirik

Ikusten degu errebista orrek
denontzat zenbat lan duan
errez egin leike batuta
emen bear dan moduan
bainan batasun ori gaur
askok ez dute buruan
zer erreztasun dauden emen
artu bear da goguan

Au bizi modu penagarria
ondo pentsatzen jarrira
ondo lagundu bearrean da
aldamenetik arrika
nun ote dago edari onez
beteta dagon barrika
txorakeriak utzi ditzagun
goazen edatera korrika

Garai bateko kupela aiek
gaur balekite izketan
etzuten ikasiko aiek noski
bertsoetan bestetan
orduko aitonen bizimodua
aste egunez da festetan
erretiroa berdin samarra
seguru nere ustetan

Danan gustokoa etzan noski
orduan ere izango ziran
etxera berandu etorrita
errosarioa segiran
baldin etorri bazan oera
azkar juteko iran
andreakin asarratuta
lotara belar pillan

Ondo beteta bazegon
etzeukan otzikan
andrea zer moduz zegon
ikustera pozikan
gaur ere ez da faltako
orrelako gauzikan
ez da arritzekoa izango
aundiagoak baizikan



Utsa litzake bizi bagina
zoriontsu eta pakean
idea txarrak sortutzen dira
geren buruan kaltean
konturatuko baldin bagina
denok egunen batean
ori baino gauza oberik
ez dakit bai otean

Uste gabeen sartuak gera
olako bide txarretan
egin bearrekoak zer diran
ez degu artzen arretan
gerok ez degu utsegiterik
besteak daude zorretan
askok gabiltzala uste det
gaur uste orretan

Garai artan etzan izango
gaur dagon ainbat gorroto
batek egiten duen lana
bestek ez due gogoko
al badute txar egin gabe
nola ez diran gerako
etorkizunik ez datorrela
bistan dagola geroko

Ikasi gabez ez gabiltza gaur
guretzat ainbat onbide
ondo pentsatzen jartzen bagera
bearrezkoa da orire
uste gabeen bestei bezela
sortu gentzake gurire
bainan federik gabeak
nai dutena egin libre

Ikusten degu emen gabiltza
guztiok alkar tentatzen
ortikan ezer ez datorrela
askok ez dute pentsatzen
aspalditxoan emen ai gera
denok pakia eskatzen
bainan nik ori ez det espero
alkar ez badeu maitatzen

Radio eta telebistatik
ikusi oi degu sarri
disparate batzuk esanez
nola dabilzan alkarri
berak dauzkaten palta guztiak
besteri nai dio ezarri
larogei urteko aitona batek
oiek ez ditu pozgarri

Penagarria askorentzako
gaur dagoen bizitza
aiton amonak ospitalean da
berak kalean dabilza
obe luteke gaur daukatena
betirako balitza
aiek ere laster entregatu bear
etxeko atearen giltza

Lenago ere entzunak gera
ola moduzko kasuak
gaztien faltan nola dabilzan
ainbat guraso gaisoak
Jaunari esker emateko gabiltza
etxean ondo jasua
arropak ondo jantzita gero
jateko mokau goxuak

Gezurra danik ez du esango
gu ezagutzen gaitunak
alkarri lagunduz pasatzen
egun argi eta illunak
asarrerikan ez degu izan
beti izketa legunak
egin alak egin ditu
oiek azi ditunak

Apirilaren ogeita irua
nik izango det goguan
aber pasatzen dezuten danok
lengo urteko moduan
deskantsu pixkat bearrezkoa da
udara eta neguan
Jaunak nai badu Benidorrean
izango naiz orduan